

# KURDOTARREN AUTONOMIA: ANKAMOTZ

Irak Estadupean aurkitzen den Kurdistango Herriak ez du onartu haren eskaini dion Autonomi legea. Lege honek badu beregan gauza onik asko, baina ankamotz gelditu dela diote lege horretaz jabetu behar dutenek.

Bagdad-ko agintariek egin duten lehen anka sartzea, egoera berdinetan sarri gertatzen dena da, hots, Kurdistango arazoa kurdotarrek in jardun gabe zuzendu nahi izan dela berriz ere. Irak-eko aginte zentralak legea kurdotarren artean ezarri nahi izan du, hauen buru bezala agertzen den Barzaniren iritzia entzun aurretik.

Autonomiako legeak baditu bere alderdi onak egitura politikoen aldetik: Kurdistanen eratuko dira bertako ejekutiboak, legeak egiteko erakundea, administrazioagintza eta baita ere polizia erakunde berezia. Hori lortzea pauso bat aurrera ematea da, baina hortan gelditzea oinarri gabeko etxia altxatzea besterik ez da. Zertarako da, izan ere, erakunde politikoa bat zertaz erabaki ez baldin badu?

Kurdotarrek petroleoaren irabazien parte eskatu dute. Bagdad-ko agintariek ez dute aintzakotzat hartu eske hori. Nonbait beldur dira ez ote diren haiek beren askatasun asmoetan urrutiegia joango. Hor dago kurdotarren arazoa eta hori zuzendu dadin elkarrizketarako epe bat eman dieite Bagdad-ko agintari. Epe hori martxoaren 26-an bukatzen zen.

Era hortako zuzenketarik nehorik ez du espero eta maki giroan sartzan ari dira kurdotarren arteko ausartienak. Zer etorkizunarekin ordea?

Bagdad-ko gobernuan dauden Baas alderdikoek nehoiz baino sendoagoak aurkitzen dira. Bertan, Alderdi Komunistaren laguntza osoa dute eta Nasser zaleak zeharo ados daude egungo gobernuarekin.

Nazioarteko giroan ere, Irak-eko gobernuak bere alde ditu indar gehienak. U.R.S.S.ek akordio bat egin zuen dela bi urte oraingo errejimenerekin eta benetako laguntza eskaintzen dio. U.S.A.-k ez dirudi zalantzan jarri nahi duenik arabek eskaini nahi dien adiskidetasun aurpegi berria, nahiz eta sobietarren aldekoa gerta Bagdad-ko egungo errejimena.

Israel-ek aski du bere arazoari erantzuteko ahalaginak egitea eta Iran-ek, bakarrik, eskaini dezake kurdotarrek behar duten laguntza eta hau irakekin eraberritu duen harreman ofizialak uzten dion neurrian.

Kurdotarren egoera orain bi urte baino okerragoa dela ohartu beharko dute. Zerbait lorturik dute. Baina lortu duten hori borobiltzeko bidean gogor jarraitu beharko dute. Beren egoerak esango die kurdotarrei zer bidetik abiatu.

D. IZA

# Grezia-ren askatasuna aztergai



Grezia zahar eta ospatsuari, Bizanzio nagusitu zitzaion ondoko mende luzean barrena. Inperio bi-txia hau, benetan; baina greziar eraginaz eta goi-ikutuaz oratu.

Gero, ordea, XV mendean turkoak Greziar nagusitu; eta, ia lau mende luzez Greziaren izpiritu eta arima hietze agertu ziren turkoen menpean. Nahiz administrazio kaxkar batez ez bestez lagundurik, turkiar etorleen kopuru gaitzak be- rre Greziaren herrikeraren izana al- datu zuten. Eta Grezia dexente tur- kia-tartu edo otoman-dartu zen 368 urtez. Jakina denez oraindik are- ago egin zen Albania, erlijioaren al- detik Europako mahometar erresu- ma bihurtuz.

Grezia inoiz berrito greziarra (hellenikoa, alegia) izango ote zen asma, amets edo zorakeria ere iruditzen zitzaion 1.800-ko greziar abertzaleei. Nola mamituko Grezia berriarren helburu urrun hura?

Askatasun gudaaldiaz geroztikoko 150. urtemuga zela bide, horixe izan zen Londres-ko King's College delakoan 1971an hautatu zen ikerlaria. Ikastaldi hartako hamar mintzal- diak argitaratu berriak dira bilduma batetan: «The Struggle for Greek Independence», Richard Clogg Ed, £ 5.95. Eta saiakera-sorta horri buruz agertu diren txostenak eta artikuluak, nahiz Grezia barneko politika-bide soilari buruz ezertxo ere ez esan, jakingarri irudituz zaiz- kit.

1821 an, Napoleon-en kontrako garaitzapean nekeza fresko zegoela- rik, eskuindarren eskuetan zegoen Europa. Metternich buru, hauxe zen europar gobernu guztien kezka na- gusia: 1789 berririk ez. Dena ito, beraz, «desordenu» guztiak xeha, ezkertar Jaialdiak oro zafra; iraul- tza hazirik xumeenak berak, buz- tandu baino lehenago sega. 1848ra

arte, «Elkarte Saindu»-en urte hi- tsak izan ziren Europan, eta kapi- talismorik lotsagabe eta ankerre- narenak.

Errusia, «pan-eslabismo» aren bi- tartez, eta ez beti xede garbitan ari, Austria eta Turkia berneko eslaboak bultzatzen zituen. Frantzi- ak eta Breña Nagusiak, berriz, Mediterraneoan Errusia sobrasiko indar zedin beldurrez, Turkia atze- rakia laguntzen zuten; eta «inda- rruen oreka» famatu hori zela bide (orduan ere hala baitzen mundua!), Greziako, Serbiako, Albaniako, Ma- zedoniako, Bulgariako, eta abarre- ko herriak, Turkiako inperioan se- gitzera hertsatzen zituzten.

Greziarentzako, hortaz, oso garai txarra eta desegokia zen 1821-koa. Greziar abertzaleek zerbait egin na- hi zuten, bai. Nola, ordea? Viena, Londres, Paris, bertako eliza bera, aurka izanik, zer ote? Gehiegitxo zirudien.

Turkiarrak, berriz, Grezia guztian barrena sakabanaturik (oraindik ere Txipren dauden bezalatsu: hiru gre- ziar, turkiar bat), ongi sakabanatu- rik eta... agintaritzaren jabe. Gre- ziatik at ere, etsaja ez zen, izan, txingurri bat: koloka edo erdi-ko- loka bazegoen ere, ez zen makala Turkiako inperioa: Balkanak oro menderaturik, Belgradoraino; Turkia bera, Kurdistan, Siria, Irak, Arabia osoa, Egipto...

Greziar abertzaleak, horrela, King's College-ko hizlariak beren liburuan azaldu dute, bost joer- ratan zatitu ziren:

1. Ameslari batzuek Bizanzio-ren erresuma gaitza birmoldatzea edo berreraikitzea pentsatu zuten: etnia askok osatua, beraz, greziar era- gina nagusi atxikiz eta kristau or- todoxia erresuma-erlijio jarriz, Erdi- Haroko bizantzitar saiaketa berrituz

nahi zuten. Greziar inperio bat, be- raz.

2. Itxura denez Konstantinopo- lis-ko Eliza ortodoxoaren irizpide- ari eutsiaz, ahalik eta autonomi- arik zabalena lor otomandar erresu- ma alimare haren barruan; eta gre- ziar eskuideak, horrela, turkoekin hautsi gabe, ahalik eta ongienik geriza.

3. Grezia txikia izanik, atzerriko gobernuetara jo; eta atzerriko in- dar horien bitartez zerbait egin. Atzerriko indar nagusien kontra saiatzea —zioten— alferrik izango da.

4. Aldakuntza zailetan abiatu beharrean, turkiar politika-aparatoa bertan truka, eta piskanaka turkiar agintariren ordez greziar jendea sar.

5. (Gutxiarik talde honetan: «a small group» irakurtzen dugu). Isil- pean organizazio gogor eta izkutu bat muntatu; eta hona bitartez greziar hirietan atzeritar multzoa gogorik kolpatzen has. Hilkitza ba- ti kontra-hilkitza bat jarraituko zaio; eta greziar Grezia eta tur- kiar Turkia elkarren etsai amorra- tu bihurturik, nahi-ta-ezko bihurtuko dira biak. Eta zuhurtziak bazter erazten zuten bide kupidagabe ha- xe nagusitu zen Greziaren kondai- ran. Honela eta ez bestela sortu zen Grezia.

Abertzaleek 1822an «Grezia As- katua» Epidauron sortu ondoren, dena dela, segidan ito zuten tur- kiarek odoletan eta sutan. Men- debaldeko intelektualak izutu egin ziren; eta, geroko Malraux edo De- bray bezalatsu, zapaldutako abert- zaleak laguntzera joan ziren (Lord Byron idazlea barne). Zazpi urte nahasi igaro ziren gudadeta hartan; eta azkenean, Errusiaren laguntza- ri esker, Grezia sortu zen.

Greziaren heren bakar bat men- deratzen zuten haserako Athenas-ko gobernuak (1829). Salonika eta Thracia osoa, askoz geroago bildu ziren Greziara. Bizanzio zaharra, ber- riz, Turkian dago oraindik (nahiz ortodoxoen Erroma Konstantinopo- lis izan). Eta greziar abertzaleetan gogorizaleak Mustafa Kemal ekarri zuten Ankarako gobernura...

Smirna-ko deskalabroa, horrela, ehun, urte beranduago ekarri zuten «Philiiki Etairia» taldeak: 1922an bo- ta zituzten turkiarrek Asia Txikitik bertako greziarrak, milaka (Onassis lekuko!)

Eta 1974 honetan bertan ere, Eoka gogorra izanagatik ere, hortxo da- go tinko Txipreko arazoa, eta iz- kutuan hila da, helburua lortu ga- be, Grivas jenerala.

Alderdi onak eta txarrak batera, beraz. Liburu horretan badago, bai, zer hausnarturik.

LARRESORO

## ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK  
URRALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa: 65 19 60

Landolako: 65 19 33

URRETXXUA

Urrutizkiña:

Landolako: 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

ERLOJU ETA BITXITEGIA

# Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrutizkiña: 417751 - Etxekoa: 422700 - DONOSTIA



## Donosti-Aurrerki-Kutxa

### EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen benero azken!  
Ongarri ta sberneak  
Bolar Zuloak  
Eroel edo berritzea diru  
surrentzeak  
Baserri, lur-tronak ta aber  
Tasalaogako Perira Joan  
ototriak

Baserriaren aldia

